

XABIER
IRUJO
UNAI
BELAUSTEGI
IÑAKI
LOPEZ DE LUZURIAGA

IRAGANAREN LEKUKO EUSKAL HERRIAREN HISTORIA



HITZAURREA

DUELA 40.000 URTE INGURU, gizaki talde txiki bat Euskal Herria deitzen diogun lurraldera iritsi zen. Haiek ere toki honi etxe deitu zioten. Altxerri haitzuloan babestu ziren, eta han, emakume talde batek bisonte handi bat margotu zuen, paleolitoko bizitzaren ikur. Izan ere, bisonte gorriaren irudia lehen biztanle haien bizimoduaren eta naturarekiko harreman estuaren lekukotasuna da. Garai hartako gizataldeentzat, animaliak elikagai, jantzi eta tresna iturri ziren, eta, aldi berean, espiritu eta sinbolismoz betetako irudiak.

Bizkaiko Golkoaren babespean, gizakia 400 mendez garatzen joan da, naturarekiko harreman estuan eta historiaurreko kultura handiak sortuz. Altxerriko margoetatik mundua harrapatu berri duen azken pandemiara arte. Lehendabiziko biztanle haiek, Madeleine, Solutre eta beste hainbat kultura handi eratu zituzten, eta euren bizitzaren aztarna ugari utzi dizkigute. Haitzuloetako margolanek, tresna landuek eta ehizatutako animalien hondakinek garai hartako bizitzaren berri ematen digute. Gainera, dolmenak eta harrespilak bezalako eraikuntza megalitikoek erakusten dute nolako garrantzia zuten haientzat hileta errituek, sinbolismoak eta komunitatearen loturak.

Gizaki horiek ez zuten bakarrik biziraun, elkarrekin harreman sendoak eraiki zituzten. Harremanok ulertzeko ezinbestekoa zen komunikazioa, eta garai haietako gizakiek komunikazio sistema eraginkorrak sortu zituzten, noski. Ez da harritzekoa, hortaz, gizataldeek ulermenaren bidez komunitate sendoak eraiki izana, eta hori funtsezkoa izan zen erreprodukziorako eta kultura transmititzeko.

Bizkaiko Golkoaren inguruak, bere natur baliabide eta babesarekin, ezinbesteko eszenatokia eskaini du historiaurreko gizarte horien garapenerako. Dolmenak, harrespilak, haitzuloetako artea eta haien arrasto materialak ez dira soilik iraganaren lekuko, gure historiaren, nortasunaren eta ondarearen parte dira, eta erakusten digute nola antzinako garaietatik, egun Euskal Herria deitzen diogun eremuan, gizakia etenik gabe bizi izan den.

Inguru hauetako lehen biztanleak izan zirenek, euren bizimoduarekin, oinarri batzuk ezarri zituzten, gero, belaunaldiz belaunaldi, aldatzen eta testuinguru

berrietara moldatzen joan direnak. xxi. mendeko lehendabiziko laurden honetan ezagutu ditugunak mundu mailan bizitakoek Euskal Herrian ere zuzenean eragin baitituzte: Internetaren eta teknologia berrien zabalkunde ikaragarria, genero identitate arau tradizionaletik apurketa nortasun alternatiboen alde, bilakaera ekonomikoak eta aberats eta pobreen arteko distantziaren handitzea, ingurugiroa-
rekiko kezka...

Egungo euskaldunetan, hasierako biztanle haien oinordetza genetikoa eta kulturala antzematen duenik egon bada, historiako pasarteek, ingurumenak eta giza harremanek eragin ostean, moldatu eta egokitu egin dena. Ezinezkoa litzateke historiaurreko biztanle haiei gaurko mundua azaltzea; ziur asko, guk euren ulertze-ko ditugun zailtasun berberak edukiko lituzkete. Eta batzuen eta besteen artean nolabaiteko loturak jarraitzen duela esateak, atzera begiratzeko saiakerari hasiera bat jartzea da.

Hizkuntza izan daiteke horren beste adibide bat. Euskarak (edo bere arbasoek), munduan bizi den hizkuntzarik zaharrenetako batek, iraganean oinarrituta izan du bere bilakaera, baina etengabeko egokitzapen horrek mantendu du bizirik. Gauza bera gertatu da gure ohiturekin, tradizioekin eta balioekin. Ez gara berdinak, baina lehengo biztanle haiek lur hauek bizitoki hartu zituztenetik gaur egunera arte jarraikortasun bat aurkitu daiteke.

Orain dela lau urte hasi ginen hausnartzen gai hauen inguruan. Euskaratik eta Euskal Herritik abiatuta, gure herriaren kronika historikoa idazteari ekin genion, interpretazio paradigma propio batetik. Asko idatzi da euskaldunei buruz, bai atzeritik, bai bestelako ikuspegi eta interesetatik, batez ere erdal irakurle talde zabalarik begira. Haatik, gutxi idatzi da Euskal Herritik bertatik eta euskaraz, bertakoen ikuspegiak eta esperientziak oinarri hartuta. Beharrezkoa ikusi genuen gure historia errepatatzea. Hasteko, Euskal Herriaren osotasuna azaldu nahi izan dugu, erdal nominalismoei ihes eginez. Euskaldunak ez dira objektu pasiboa izan historiaren joanean, subjektu aktiboa baizik. Alegia, agente historikoa, habitus baten jabe (Pierre Bordieuren kontzeptua berreskuratuz). Gure kronika historikoak euskaldunen ikuspuntutik begiratu nahi dio iraganari, egiaztapen bakar batetik abiatuta. Euskaraz idazteak berak bakarrik, gure hizkuntzari eta kulturari ekarpen berri bat egiten dio, sekula soberan egongo ez den ekarpen bat, eta, aldi berean, euskaldunen historia ulertzeko beste proposamen bat eskaintzen du.

Hala, herriaren kronika historikoa herriaren hizkuntzan egitea zerbait naturala beharko luke, baina batzuetan, arraroa edo hartutako konpromisoen adierazle bihurtzen da. Euskal herritarrek behar dutena ez da soilik historia kontatzea, baizik eta historia horretan bere ahotsak eta bere hitzak azaltzea, munduari erakutsiz –gure inguruko beste herri guztiekin batera– euskaldunak izan direla iraganaren, orainaren eta etorkizunaren protagonistak.

Erbestean jaio direnek, edota euskal diasporaren seme-alabak direnak/garenok ongi dakite/gu euskaldunen historia ezin dela soilik gaur egungo Euskal Herriaren marko geografikoaren baitan ulertu. Gure historia mugak gainditzen dituen errea-

litate bat da, mendez mende euskaldunek osatu duten komunitatea izanik bere ardatz nagusia. Hizkuntza, kultur ondarea eta harremanak ditugu historia honetan lotura nagusiak, ez muga politikoak.

Euskaldunak historiaren subjektu aktiboak izan dira. Historiaurrean, gure arbasoek harreman sare sendoak josi zituzten inguruko komunitateekin, komunikazio eta elkartruke sistemak garatuz. Gerora, mendez mende, gerrek, migrazioak, merkataritzak eta gatazkek eraginda, euskaldunek beren nortasuna atxiki eta garatu dute, nahiz eta askotan ataka zailak bizi izan. Euskara, historiako askotariko garaietan, euskaldunen batasun elementu izan da, lurralde banaketak eta testuinguru desberdinak gorabehera. Euskaldunak ez dira muga administratiboen barruan soilik existitu; alderantziz, hizkuntza eta kultura hau Europan eta munduan zabaldu da. Euskal diasporak ere argi erakusten du euskaldunen izaera subjektibo eta aktiboa: jatorriarekiko loturari eutsi eta eremu berriak moldatu dituzte, bai Europan, bai Ameriketara, bai eta munduko beste hainbat tokitan ere.

Euskaldunen historia, beraz, subjektu aktibo baten historia da, komunitate batek bere burua antolatu, egokitu eta berrasmatu duen prozesu iraunkor bat. Euskal Herriaren gaur egungo marko geografikoa kontuan hartu behar bada ere, ezin dugu gure historia soilik horretara mugatu. Euskaldunen ekintzak, erabakiak eta garapenak dira historia honen benetako protagonistak, eta horiek ezagutzea da iragana eta etorkizuna hobeto ulertzeko gakoa.

Munduko beste herri baten kronikak bezala, Euskal Herriaren historiak ikuspegi poliedrikoa behar du, alde bakarreko kontakizun deterministak edo teleologikoak baztertuz. Euskaldunen historia ez da soilik zapalkuntzaren kontakizun bat, ezta beti subjektu aktibo eta garaile izan zirelako ideia soil bat ere. Historia hau, gainera, ez da lineala, gatazka, egokitzen eta paradoxa askoren bilduma baizik.

Euskaldunak mendez mende zapalduak izan dira, hainbat egitura politiko, kultural eta sozialen presiopean, baina aldi berean, zapaltzaileen egituretan integratu eta haietan modu aktiboan hartu dute parte. Euskal herritarrek botere zentroen egituretan, merkataritzan edo administrazioan lehen lerroan aritu dira, eta haiekin dialektikan ondu dute bere nortasun historiko eta antropologikoa. Esate baterako, euskaldunek arrakasta handia izan zuten xvi. mendetik aurrera itsas merkataritzan eta esplorazioetan. Historiaren ikuspegi ez-lineal horrek erakusten du Euskal Herriaren errealitatea –munduko beste edozein herri bezala– paradoxaz eta kontraesanek betea dela. Euskaldunak, bertakoekin eta mundu zabalarekin harremanetan aritu dira etengabe, eta boterearen logikan parte hartu dute, horren eragile ere izan direlarik. Horrek erakusten du historia iraganeko ekintzen segida zuzen eta aurreikusgarria izateaz gain, kronika korapilatsua dela, bidegurutzez eta bihurgunez betea.

Ikuspegi poliedriko horrek historiaren ulermena aberasten du, harreman eta eragin askotarikoa agertuz. Gatazka eta erresistentziaren kontakizunak ezin dira baztertu, baina ezin dira kontuan hartu euskal komunitatearen errealitate anitza eta konplexua barne hartzen duten bestelako prozesuak alde batera utzita.



Euskal Herrian 700 dolmen inguru daude. Dolmenak, menhirrak eta kromlechak dira ohikoak, eta gehienak 900-1100 metroko altueran daude. Dolmenak kolektiboki lurperatzeko erabili ziren, eta kromlechetan gorpuak erretzen eta lurperatzen ziren.

Horregatik, Euskal Herriaren historia ulertzeko, beharrezkoa da ikuspegi zabal eta sakon bat hartzea, zapalkuntza eta zapalketa, erresistentzia eta integrazioa, tradizioa eta modernitatea bateratuz. Historia hori aberatsa, bihurria eta askotarikoa da, eta horrek egiten du hain berezi.

Hamaika arazo izan ditugu liburu hau idazteko, eta horrek berak erakusten du gure historia propioa aztertzea ez dela lan erraza. Lehenengo eta behin, terminologiarekin lotutako arazoak izan ditugu. Historian erabilitako kontzeptuak, askotan, kanpotik ekarriak izan dira, eta gure errealitatea deskribatzeko egokitzen lana behar izan dute.

Onomastikarekin ere erronka handiak izan ditugu. Pertsona izenak eta leku izenak erdaraz transkribatu edo moldatu dira historian, eta horrek gure iraganaren interpretazioan distortsioak eragin ditu. «Aznar» abizenak euskal antroponimo baten bilakaera erromantzearen ondorioa da; haatik, Erdi Aroaren gehiengean euskaldunek Aze(n)ari forma etimologikoa baliatu zuten. Izen horiek beste hizkuntzetara egokitzean, jatorrizko esanahia eta testuingurua galdu dute. Beste batzuetan, erdal forma idatziak ez dira ohiko euskal formen isla («Jean» pertsona izena), eta ez da gorde dena delako pertsonaren erdal formak euskaraz zuen izen-dapena. Euskaltzaindiak aukera berriak ireki ditu ezagutzarako bere webgunearen bitartez, ikerketa ederrak egiten ari dira onomastikan azken 25 urtean, baina forma estandarizatuak erabakitzeak beti ematen ditu buruhausteak, jakinik izen askok mende luzez iraun dutela. Horrek esan nahi du ikerketa sakona behar dela

izen horien jatorria eta erabilera ulertzeko, eta horrek konplexuago bihurtu ditu liburu honen idazketa lanak.

Gainera, epistemologiari lotutako erronkak izan ditugu. Gehienetan, Euskal Herriaren historia ulertzeko erabili ditugun iturriak eta markoak erdaretatik edota itzulpen literaletatik etorri dira. Ikuspegi horiek askotan ez dira bat etorri herri honen iraganarekin eta oztopatu egin dute gure historia erabat ulertzea. Beste horrenbeste esan daiteke generoari buruzko ikuspegiaz: emakumeen gizarte rola ezkutuan iraun du historiografian, bazterretara kondenatua. Ahal izan den neurrian, genero perspektiba gurerak ekartzen saiatu gara, azken urteotako ikerketa historikoetatik edanez. Hori dela eta, gure ikuspuntu propioak eraikitzea eta, ahal den neurrian, gure historiaren azterketa modu autonomoan egitea izan dugu helburu.

Hala ere, arazo horiei guztiei aurre eginez, liburu honek Euskal Herriaren historia modu sakon eta koherenteago batean ulertzeko aukera eman digu. Gure herriaren kronika zientifiko eta akademikoa da, nahiz eta dibulгатiboa eta irakurtzeko eroso egiten saiatu garen. Erronka horiek guztiak gaitzitzea ez da erraza izan, baina, era berean, prozesu aberasgarria izan da. Euskal Herriaren historia artikulatu eta ulertzeko bidea ez da beti erraza, baina ezinbestekoa da herri honen iragana hobeto ulertzeko. Horretarako, historia kanpoko markoetatik askatzea eta gure tresna propioekin lantzea dugu helburu, gure iraganaren kontakizun egoki eta zintzo bat eraikitzeko. Arazo bakoitza aukera bihurtu dugu, eta hori da lan honen balio nagusia.

Iruñean, 2025eko otsailaren 15ean